

# udajolas

2026

udaleku irekiak

Aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz igarotzeko aukera



*Udajolas*, Usurbilgo 4-12 (HH3-LH6) urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendutako euskarazko Udalekua da. Astelehenetik ostiralera izaten da, uztailak 6an hasi eta uztailaren 30ean amaituko da, 9:30-13:30 ordutegiarekin. Ostegunetan irteerak egiten dira eta 16:30ean bukatzen da.

Udajolasen helburua Usurbilgo haurrei zein gazteei euskarazko aisialdi eskaintza egokia (hezitzailea eta baloretan oinarritua) bermatzea da, gure hizkuntza den euskararen normalizazioa bultzatzeko.

**Izena emateko epea:** apirilak 16tik, apirilaren 27ra (biak barne)

**Izena emateko lotura:** <https://labur.eus/ekpgerlm>

**Kuota(\*):** 135€ arrunta eta 114,75€ Familia Ugariak.



(\*) *Horrez gain, errentaren araberako hobariak aplikatuko dira, aurrez udalak onartutako ziurtagiria aurkeztuta. **Hobariak dituztenek ondorengo kuotak ordaindu beharko dituzte:***

| Onartutako hobia | KUOTA arrunta hobiaarekin | Familia Ugariaren KUOTA hobiaarekin |
|------------------|---------------------------|-------------------------------------|
| % 50             | 67,50€                    | 57,37€                              |
| % 75             | 33,75€                    | 28,68€                              |
| % 90             | 13,50€                    | 11,47€                              |

**Ordainketa** Laboral Kutxako kontu honetan egin behar da, eta garrantzitsua da **UDAJOLAS** eta **HAURREN IZEN -ABIZENAK** adieraztea.

**ES28 3035 0140 34 1400025811** (Usurbilgo Udaleko kontua)

Izena ematerakoan bidali ([elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus) helbidera) beharrezko dokumentuak:

- Ordainketa agiria
- Gizarte Segurantzako txartelaren kopia edo argazkia
- Familia Ugarien kasuan, Familia Ugarien txartela edo Familia Liburuaren kopia.
- Hobarien kasuan, udalak aurrez emandako ziurtagiria.

**Oharrak:**

- Apirilak 27a da izena emateko azken eguna. Epez kanpoko izen-ematerik ez da onartuko.
- Informazio gehiago [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus) helbidean edo 688807336 telefonoan
- Guraso-bilera, ekainaren 23an (asteartea) izango da Sutegiko auditoriumean, arratsaldeko 17:00etan.



**noaua**



Usurbilgo Udala